BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA - PINUA

1. LOTE – AF-DIP 17-1-114
2. LOTE - AF-DIP 17-1-115

1. APROBETXAMENDUAREN XEDE DIREN ZUHAITZEN SEINALEZTAPENA DESKRIBATZEA.

Moztu beharreko zuhaitzek aizkoraz bularraren parean egindako marka daukate.
Enkantearen xede den espezieko zuhaitz guztiak moztu beharko dira, merkataritzarako aprobetxamendurik ez daukatenak ere bai

2. APROBETXAMENDUAREN EGIKARITZE EPEA.-

Egikaritze epea adjudikazioaren datatik aurrera hasiko da zenbatzen.

3. APROBETXAMENDUA ATERATZEKO ORDUAK

Astelehenetik ostiralera eta goizeko 8:00etatik arratsaldeko 6:00etara, aldeko basozainari aldez aurretik abisua emanda.

4. EGURRA ATERATZEKO ERABILI BEHARREKO BIDEAK.-

Eguraldiaren egoeraren ondorioz ateratzeko bideei edo zoruari kalte handiak eragin dakizkiela aldez aurretik antzeman daitekeenean, zuhaitzak botatzeko eta egurra ateratzeko lanetan Baso Zerbitzuak ahalmenak ditu pisu handiko makineriaren erabilera galarazteko.

Mendian dauden pistak erabiliko dira. Aprobetxamendurako pista berriak irekitzea beharrezkoa bada, Baso Zerbitzuaren baimena beharko da. Horretarako, pisten arteko distantziak 60 metrotik gorakoa izan behar du. Kasu horretan, zerbitzu horretako langileek gainbegiratu eta markatuko dituzte ireki behar diren bideak.

Baliteke aprobetxamendua egiteko beharrezkoa izatea egurra ateratzeko bide berriak sortu behar izatea, bien arteko distantziak aprobetxamendua bitarteko mekanizatuekin egitea ahalbidetzeko. Hala bada, Baso Zerbitzuak baimena eman beharko du bideak irekitzeko, eta zerbitzu hori izango da bideen trazadura lurrean marrazteko arduraduna. Beharrezkoak diren pista berriak

PLIEGO CONDICIONES TECNICAS – PINO

LOTE 1 – AF-DIP 17-1-114
LOTE 2 - AF-DIP 17-1-115

1. DESCRIPCIÓN DEL SEÑALAMIENTO DE LOS PIES OBJETO DEL A- PROVECHAMIENTO.

Los pies a apear están marcados con hacha a la altura del pecho.
Deberá apearse todo el arbolado de la especie objeto de la subasta, incluso el que no tiene aprovechamiento comercial

2. PLAZO DE EJECUCIÓN DEL APROVECHAMIENTO.-

El plazo de ejecución se contará a partir de la fecha de adjudicación.

3. HORARIO PARA LA EXTRACCIÓN DEL APROVECHAMIENTO

Será de lunes a viernes y de 8 horas de la mañana a 6 horas de la tarde, previo aviso al Guarda Forestal de la Zona.

4. VÍAS DE SACA A UTILIZAR.-

Cuando las condiciones de climatología, permitan predecir que los daños que se ocasionen a las vías de saca, o al suelo sean importantes, el Servicio de Montes está facultado a prohibir la utilización de maquinaria pesada en las operaciones de desembosque y extracción de madera.

Se utilizarán las pistas existentes en el monte. En caso de ser necesaria para el aprovechamiento la apertura de nuevas pistas, siempre con distancias entre pistas superiores a 60 m., será precisa la autorización por parte del Servicio de Montes, cuyo personal será el encargado de la supervisión y marcado de las vías a abrir.

Para la ejecución del aprovechamiento puede ser necesario proceder a la apertura de nuevas vías de saca al objeto de que la distancia entre las mismas permita la ejecución mecanizada del aprovechamiento. En dicho caso, la apertura deberá ser autorizada por parte del Servicio de Montes, que será el encargado de marcar el trazado de las mismas en el terreno. Los costes de apertura de nuevas pistas que resulten necesarias serán a cuenta de la empresa adjudicataria del lote de madera, excepto aquellas pistas de

irekitzearen kostuak egur-zatiaren adjudikazioa daukan enpresak ordaindu beharko ditu, hautsi ezin den arrokan irekitzen diren pistak izan ezik.

Landutako egurra garraiatzeko auzo-bideak erabiltzerakoan, adjudikaziodunak udal-ordenantzetan edo tokiko edozein xedapenetan ezarrita dauden betebeharrak bete beharko ditu.

Aprobetxamendua amaitutakoan, adjudikaziodunak pistetan eta egurra ateratzeko bideetan egin dituen kalteak konpondu beharko ditu. Kalteen arabera, pista orokorrak eta bigarren mailakoak egoera onean uzteko behar diren agregakinak ekarri beharko ditu. Nolanahi ere, aprobetxamendua bukatu eta gero eta fidantza itzuli aurretik pistak gutxienez lanak hasi baino lehen zuten egoera berdinean utzi beharko dira.

## 5.- EGUR-PARKEAK.-

Mendian daudenak. Ez da egurrik ez mozketaren hondakinik utziko areketan.
Pilatutako egurrak ez du ibilgailuen zirkulazioa oztopatuko.

## 6.- DIAMETROAK.-

Gehienez 8 zentimetro puntan.

## 7. APROBETXAMENDUA GAUZATZEA ETA ZUHAITZAK BOTATZEKO EPEAK.-

Adjudikaziodunak, lan arloan indarrean dagoen legediaren arabera, aprobetxamendua ezarritako epean burutzeko beharrezkoak diren langileak izango ditu. Lanak etenik gabe egingo ditu, eta langileei dagokienez aprobetxamendua burutu bitartean aldaketarik egonez gero, horien berri eman beharko dio aldeko basozainari.

Zuhaitzen mozketa lurraren maila kontuan hartuta, 10 zentimetrotik behera egingo da (motzondoaren altuera < 10 cm).

Arrastatzea dauden bideetatik egingo da, eta bota gabeko beste mota bateko zuhaitzei kalterik egin gabe, arrastatzea egiteko traktoreak edo beste edozein ibilgailuk ezin izango du mendian zehar zirkulatu, Baso Zerbitzuko langileek berariaz baimendu ez badute, justifikatutako arrazoiren bategatik.

Zuhaitzak botatzeko epea hamabost egunekoa izango da lur-neurketa datatik aurrera, eta egurra ezingo da mendi barruan pilatuta utzi, gaixotasunak eta izurriteak ugaritzea saihesteko,

apertura en roca no ripable

El adjudicatario deberá cumplir con las obligaciones que estén establecidas en las ordenanzas municipales o cualquier tipo de disposición local por uso de caminos vecinales en el transporte de la madera elaborada.

Tras la finalización del aprovechamiento el adjudicatario está obligado a repasar los daños causados en las pistas y vías de saca, realizando, en función de los daños, los aportes de material de áridos necesarios para dejar en buen estado las pistas generales y secundarias. En cualquier caso una vez finalizado el aprovechamiento y antes de la devolución de la fianza, las pistas deberán quedar, como mínimo, en el mismo estado en que se encontraban antes del inicio.

## 5.- PARQUES DE MADERA.-

Los del propio monte. No se depositará madera, ni restos de corta en las cunetas.
La madera apilada no deberá impedir la libre circulación de vehículos.

## 6.- DIÁMETROS.-

Hasta 8 centímetros en punta.

## 7.EJECUCIÓN DEL APROVECHAMIENTO Y PLAZOS DE DESEMBOSQUE.-

El adjudicatario, contratará, de acuerdo con la legislación laboral vigente, el personal necesario para ejecutar el aprovechamiento dentro de los plazos establecidos, realizando los trabajos de manera ininterrumpida, comunicando las variaciones de personal que se produzcan durante la ejecución del aprovechamiento al Guarda Forestal de la Zona.

La corta del arbolado se realizará a una altura inferior a 10 centímetros a partir de la superficie del suelo. (Altura del tocón < 10 cm.)

El arrastre se realizará por las vías existentes y sin daño a otro tipo de arbolado en pie, quedando prohibida la circulación del tractor arrastrador ó cualquier otro vehículo monte a través, sin la autorización expresa del personal del Servicio de Montes por causa justificada.

El plazo de desembosque será de 15 días a partir de la fecha del apeo, no pudiendo dejar madera apilada dentro del monte, con el fin de evitar la proliferación de enfermedades y plagas, con el consiguiente riesgo sanitario sobre la masa.

horrek masarengan eragiten duen arriskuarekin.

Egurra lantzeko prozesagailua erabiltzen bada, pistaren ertzeko gune konkretu batzuetan pilatzen diren hondakinak, hain zuzen ere prozesagailuak lan egin duen lekuetan pilatzen direnak, kendu egingo dira edo mendira bultzatuko dira; pistak libre utziko dira, ebaketa- eta adar-hondakin barik.

Langile-taldeek arduradun bat izango dute.

Arreta berezia eduki beharko da KALTERIK EZ EGITEKO aprobetxamendutik kanpo geratzen diren eta zutik dauden zuhaitzetan. Modu berezian errespetatu beharko dira basoko zenbait espezie autoktonoren araubide espezifikoaren 11/97 Foru Arauak, urriaren 14koak, bere 1. artikuluan jasota dituen hostozabalak.

Seinalerik ez duten bota gabeko zuhaitzei kalteak eragitea edo zuritzea saihestu beharko da; horretarako, egurra arrastatzea eta ateratzea bereziki zaindu beharko da, eta, hala badagokio, baita egurra prozesatzea ere.

Urbazterreko eremuetan (ubide iraunkorrak eta urte-sasoien araberakoak), ur-bazterrean dagoen landaredia dagoen bezala mantendu behar da, ezin da ebaketaren hondakinik bertan pilatu eta neurriak hartuko dira urak ez uhertzeko. Erreken alde bakoitzean, gutxienez 5 metroko tartean, debekatuta dago makineria pasatzea.

Aprobetxamendua bukatzean, sortutako hondakin guztiak bilduko dira (erregai-bidoiak edo -bonbillak, zaborrak edo beste edozein hondakin mota), eta mendia garbi utzi beharko da, edo, gutxienez, lanak hasi aurretik zegoen egoera berdinean.

Orokorrean, aprobetxamendua mendiaren irteera urrunen dagoenetik hasiko da eta zona baxuenetik altuenera burutuko da.

## 8. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

- Lanak ETENIK GABE egingo dira. Aprobetxamendua egiten den bitartean langile-aldaketarik badago, aldeko basozainari jakinarazi beharko zaio.
- Lan arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, garatu zuen urtarrilaren 30eko 171/2004 ED-a betez, lanak hasi baino lehen, arriskuen ebaluazio bat eta lantokian egingo diren eginkizunen

En caso de utilizarse procesadora para la elaboración de la madera, los restos de la elaboración que se suelen acumular en puntos concretos a borde de pista, donde ha trabajado la procesadora, deberán ser retirados o empujados al monte, dejando las pistas libres de restos de corta y ramas.

Las cuadrillas de trabajadores tendrán un encargado responsable.

Se deberá tener especial cuidado en NO DAÑAR los árboles en pie que queden excluidos del aprovechamiento, procurando el máximo respeto a las frondosas incluidas en el artículo 1 de la Norma Foral 11/97, de 14 de octubre, de régimen específico de diversas especies forestales autóctonas.

Cabe señalar especialmente la obligación de evitar el descortezado o cualquier tipo de daño sobre el arbolado no señalado y que permanecerá en pie, para lo cual se habrá de poner especial cuidado durante el arrastre y saca de la madera y, en su caso, durante el procesado de la madera.

En las zonas ripícolas (cauces de agua permanentes y estaciónales) se deberá mantener la vegetación de ribera existente, no acumulando restos de corta y tomando medidas para evitar el enturbiamiento de las aguas. Queda prohibido el paso de maquinaria en una franja de cómo mínimo 5 metros a cada lado de los arroyos.

Al finalizar el aprovechamiento se recogerán todos los desperdicios generados (bidones o garrafas de combustible, basuras o cualquier otro tipo de desperdicio), debiendo dejar el monte limpio, o al menos, en las condiciones previas al inicio de los trabajos.

De forma genérica, el aprovechamiento se hará comenzando por la zona más alejada a la salida del monte y desde la zona más baja a la más alta

## 8.- OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO

- Los trabajos se realizarán de manera ININTERRUMPIDA, comunicando las variaciones de personal que se produzcan durante la ejecución del aprovechamiento al Guarda Forestal de la Zona.
- Para dar cumplimiento al R.D. 171/2004, de 30 de enero, por el que se desarrolla el artículo 24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales, deberá presentar antes del inicio de los trabajos una Evaluación

prebentzio-jardueraren plangintza aurkeztu behar dira.

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea betez, beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko; horretarako, bere ardurapean dauden pertsona guztiei beharrezko elementu guztiak emango dizkie, hala nola: norbera eta taldea babesteko ekipamenduak, prestakuntza eta informazioa. Obran erabiltzen diren norbera babesteko ekipoek EE-ren marka eduki behar dute, egoera onean hornituko dira, eta egilearen erabilera-gomendioak eduki behar dituzte.

de riesgos y planificación de la actividad preventiva de las tareas que vaya a realizar en el centro de trabajo.

- En cumplimiento de la Ley de Prevención de riesgos laborales deberá adoptar todas las precauciones necesarias para garantizar la seguridad de los trabajadores, así como la de terceros; a tal fin dotará a la totalidad de las personas que se encuentren bajo su dependencia de los elementos necesarios, tales como: equipos de protección personal, colectivos, formación e información; los equipos de protección individual que se empleen en la obra deberán contar con el marcado CE, serán suministrados en buen estado y acompañados de las recomendaciones de uso del fabricante.

P.A.

Bizkaia

O.E./Vº. Bº
BASO ZERBITZUKO BURUA
EL JEFE DEL SERVICIO DE MONTES

MENDI INGENIARIA
EL INGENIERO DE MONTES